

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak, gure produktua bezeroengana iritsi arteko jarduerak dira. Hau da, kontsumitzaileengana iritsi arte egin beharrezko gauza esentzialak dira.

Lehenik kide guztien artean aterkia diseinatu egingo dugu. Hau da, nolakoa izango den, funtzionamendua, abantailak eta desabantailak, estetikoki nola izango den... etab.



Beharrezko produktuak ekoizten dizkiguten enprekin harremanetan jarriko gara. Hau da, azpikontratazioarekin. Bakoitzak gure beharrentzako produktak eskainiko dizkigute, eta ondoren guk gure produktua ekoitziko dugu.

Ekoizpena eskuz egingo da, hau da, gure ekoizpenerako langileek josteta makinak izango dituzte, aterkia lonarekin lotzeko. Jarduera hau sinplea izango da. Horren bidez, gure produktua prest egongo litzateke salmentan jartzeko. Normalean, guk adostutako aterki motak (kolorea eta tamainaren arabera) egingo lituzkete. Hala ere, gure bezeroek beraien gusturako aterkiak enkarga ditzazkete, kontuan hartuta egun gehiago iraungo lukeela entregatze prozesua.

Azkeneko pausua eta jarduerarik garrantzitsuenetarikoa dena, produktua saltzea da. Bi erosteko era eskaintzen ditugu. Dendan fisikoki erostea eta bigarren aukera internet bidez erostea izango da. Bi aukera hauen bidez bezeroen gustura aterkia egitea aukera izango dute.

